

PR

FORMA ARTISTIKO
BERRIEN
NAZIOARTEKO
BIENALA

T

BIENAL
INTERNACIONAL DE
**NUEVAS FORMAS
ARTÍSTICAS**

TIP

INTERNATIONAL
BIENNIAL
OF NEW
ARTISTIC FORMS

AK

BILBAO

2025 | 27 › 31 MAIATZA · MAYO · MAY

PROTOTIPOAK.AZKUNAZENTROA.EUS

PROTOTIPOAK

FORMA ARTISTIKO BERRIEN NAZIOARTEKO BIENALA BIENAL INTERNACIONAL DE NUEVAS FORMAS ARTÍSTICAS INTERNATIONAL BIENNIAL OF NEW ARTISTIC FORMS

EU

Prototipoak Bilbao: artea ikustea eta bizitzea zentzumen guztiekin

Prototipoak Bilbao, Azkuna Zentroaren Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Bienala, elkargune bat da ikuspegi eta jatorri desberdinetatik kultura garaikidea esperimintatzeko beste modu batzuk proposatzen dituzten sortzaileentzat, artea zentzumen guztiekin ikusi eta bizitzeko forma desberdinak proposatzen dituzten horientzat, harremanak, ezagutzak, oroitzapenak eta bizipen partekatuak ehuntzea xede izanda.

Proposamen gehienak *site-specific*-ak dira, eta haien bidez artistek publikoa gonbidatzen dute munduarekin eta naturarekin harreman sentikorra izatera, enpatiatik, harriduratik, jakin-minetik, arrotasunetik, urduritasunetik, desiratik, zentzumenetatik... abiatuta. Lanek arte-diziplinen mugak gainditu, hedatu eta lausotzen dituzte, ekintza performatiboen, antzerkiaren, argazkigintzaren eta arte bisualen bidez.

Prototipoak proiektuak jarraipena ematen dio 3, 2, 1, *Forma Eszeniko Berrien Nazioarteko Topaketa* programak 2013. eta 2015. urteen artean egindako lanari, eta areago zabaltzen du. 2016an sortu zenetik, alderdi sozialaren izaera, performatibitatea eta ugaritasuna ikertu nahi izan ditu artearen bidez, eta, horrez gain, ekarpena egin nahi du era kritikoan eratzeko, alde poetiko, estetiko eta politikotik.

Maiatzeko azken astean egoten da ikusgai, baina Prototipoak Bilbao hilabete batzuk lehenago hasten da. Proiektu batzuek bienalaren aurreko edizioan ere izaten dute sorburu, eta bitartean hazten, aldatzen eta egokitzen dira Azkuna Zentrora eta hirira. Era berean, bienal honetan abian jartzen dira datozen hilabeteetan jardunean egongo diren hainbat prozesu.

2025eko bienala artista hauen diziplina anitzeko proiektuak ditu: Luz Broto, hablarenarte & Christian Fernández Mirón, orangcosong, Dimitri de Perrot, Ça Marche, Chiharu Shiota, Lore Stessel, Hanna Tuulikki eta Héctor Zamora artistenak.

Prototipoak Bilbao: ver y vivir el arte desde todos los sentidos

Prototipoak Bilbao, la Bienal Internacional de Nuevas Formas Artísticas de Azkuna Zentroa, es el encuentro de creadoras y creadores que, desde diferentes miradas y procedencias, proponen otras formas de experimentar la cultura contemporánea, de ver y vivir el arte desde todos los sentidos para generar relaciones, conocimientos, recuerdos y vivencias compartidas.

A través de sus propuestas, la mayoría *site-specific*, las y los artistas invitan al público a adoptar una relación sensible con el mundo y la naturaleza desde la empatía, el asombro, la curiosidad, el extrañamiento, el desasosiego, el deseo, lo sensorial... Son trabajos que trascienden, expanden y diluyen los límites de las disciplinas artísticas a través de las acciones performativas, el teatro, la fotografía o las artes visuales.

Prototipoak Bilbao continúa y expande el trabajo desarrollado en Azkuna Zentroa a través del programa 3, 2, 1. *Encuentro Internacional de Nuevas Formas Escénicas*, entre 2013 y 2015, y nace en 2016 con la intención de explorar la naturaleza, la performatividad y la multiplicidad de lo social a través del arte, además de contribuir a su formación de manera crítica desde una dimensión poética, estética y política.

Aunque tiene lugar la última semana de mayo, Prototipoak empieza meses antes y algunos proyectos incluso nacen de la edición anterior. A lo largo de este tiempo van creciendo, mutando y adaptándose al contexto de Azkuna Zentroa y de la ciudad. Igualmente, la Bienal es el punto de partida de procesos que seguirán activos a lo largo de los próximos meses.

La quinta edición de esta Bienal Internacional se conforma con los proyectos multidisciplinares de Luz Broto, hablarenarte & Christian Fernández Mirón, orangcosong, Dimitri de Perrot, Ça Marche, Chiharu Shiota, Lore Stessel, Hanna Tuulikki y Héctor Zamora.

Prototipoak Bilbao: live and see art using all your senses

Prototipoak Bilbao, the Azkuna Zentroa International Biennial of New Artistic Forms, is the meeting place for creators who, from diverse perspectives and backgrounds, propose alternative ways to experience contemporary culture, see and live art through all the senses, and foster connections, knowledge, memories, and shared experiences.

Artists invite the audience to adopt a sensitive relationship with the world and nature via empathy, amazement, curiosity, estrangement, uneasiness, desire, and the sensory experience, through their proposals, the majority of which are site-specific. All these works transcend, expand and dilute the boundaries of artistic disciplines through performative actions, theatre, photography or visual arts.

Prototipoak Bilbao continues and expands the work developed at Azkuna Zentroa in the framework of the programme 3, 2, 1. *International Meeting of New Performing Arts Forms* between 2013 and 2015. Created in 2016, Prototipoak aims to explore nature, performativity and social multiplicity through art, while contributing to its critical formation from a poetic, aesthetic, and political lense.

Although Prototipoak Bilbao is featured in the last week of May, it starts months earlier. Some projects come about even before the previous Biennial and during this time they grow, mutate and adapt to Azkuna Zentroa's and the city's context. Likewise, this Biennial is the starting point of processes that will continue active during the following months.

The 2025 Biennial comprises the multidisciplinary projects of Luz Broto, hablarenarte & Christian Fernández Mirón, orangcosong, Dimitri de Perrot, Ça Marche, Chiharu Shiota, Lore Stessel, Hanna Tuulikki and Héctor Zamora.

AURKIBIDEA · ÍNDICE · INDEX



CHIHARU SHIOTA

6

My House is your House



LORE STESEL

8

Poëtry of the gang



HÉCTOR ZAMORA

10

Txirikorda



DIMITRI DE PERROT

12

In the middle of something



**HABLARENARTE &
CHRISTIAN FERNÁNDEZ MIRÓN**

14

Músicas memorables



ÇA MARCHE

16

Trabajos forzados



ORANGCOSONG

18

Engeki Quest Bilbao



HANNA TUULIKKI

20

The bird that never flew



LUZ BROTO

22

Recorrer adentro

PROGRAMA · PROGRAMME

24

CHIHARU SHIOTA

My House is your House

My House is your House / Nire etxea zurea ere bada Berlingen bizi den Chiharu Shiota (Osaka, Japonia, 1972) artista japoniarrak Euskadin egindako lehen erakusketa monografikoa da. Munduko arte garaikidearen figura nabarmenetakoa den artista honen 90. hamarkadatik aurrerako ibilbidea jartzen du ikusgai, eta Azkuna Zentroan eta Bilbon inspiratutako *site-specific* instalazio berriak ditu barne.

Chiharu Shiota-k gai unibertsalak arakutzen ditu artelanetan, besteak beste, etxea, memoria, migrazioa, bizitza eta heriotza, horretarako eguneroko objektuak erabiliz, izan arropa, izan altzariak, izan bestelako objektu pertsonalak.

Objektuok hari-sare korapilatsuetan biltzen dira, ehun tradizionalari eta ekialdeko kaligrafiari erreferentzia egin. Eskala handiko instalazioak kolore gorri nabarmenekoak dira sarri, Japoniako kultura gorria bizitzaren, energiaren eta eguzkiaren sinboloa izanik. Hizkuntza mintzatuz, naziotasunaz edo erlijioaz gainera hedatzen ditu artelanak, kontakizun unibertsala eskaintzeko, oromena galtzeaz, elkarlotzeaz eta iraunarazteaz.

Tereza de Arruda arte-historialariak komisariatutako *My House is your House / Nire etxea zurea ere bada* erakusketa honetarako, Chiharu Shiota-k, Azkuna Zentroko taldearekin batera, etxearen kontzeptua landu du, etxeko eremua espazio publikora zabalduz, Bilboko Alhóndigako arkitekturekin harremanetan jarri. Emaizak, *site-specific* moduan, gonbit egiten dio publikoari etxeko giro desberdinak esperimentatzera, bisitaria bere oroitzapenekin lotzen dutenak, eguneroko bizitzako elementuetatik abiatuta.

Erakusketa

Maiatzak 27 - Irailak 28, 11:00-20:00
Kulturen Ataria / Erakusketa Aretoa
Sarrera dohainik

My House is your House is the first solo exhibition in the Basque Country by Japanese Berlin-based artist Chiharu Shiota (Osaka, Japan, 1972), a leading figure in contemporary world art. The exhibition showcases Shiota's career from the 1990s onwards and includes new site-specific installations inspired by Azkuna Zentroa and Bilbao.

Chiharu Shiota's body of work explores universal themes such as the home, migration, life and death through everyday items—clothes, furniture, personal objects. These elements are enveloped in intricate threaded patterns, which refer both to traditional weaving and eastern calligraphy. Her great-scale works are often red in colour, which symbolises the sun, life and energy in Japanese culture. They are pieces which transcend spoken language, nationality

My House is your House / Mi casa es tu casa es la primera exposición monográfica en Euskadi de la artista japonesa residente en Berlín, Chiharu Shiota (Osaka, Japón, 1972), una de las figuras más destacadas del arte contemporáneo mundial. Presenta la trayectoria de la artista desde la década de los 90 e incluye nuevas instalaciones *site-specific* inspiradas en Azkuna Zentroa y en Bilbao.

La obra de Chiharu Shiota explora temas universales como el hogar, la memoria, la migración, la vida y la muerte, utilizando objetos cotidianos: ropa, muebles y otros objetos personales. Estos elementos se envuelven en intrincadas redes de hilo que hacen referencia tanto al tejido tradicional como a la caligrafía oriental. Sus obras a gran escala están a menudo dominadas por el color rojo, símbolo de la vida, la energía y el sol, en la cultura japonesa. Son piezas que trascienden el lenguaje hablado, la nacionalidad o la religión, ofreciendo una narrativa universal sobre la pérdida, la conexión y la preservación de la memoria.

En la exposición *My House is your House* (Mi casa es tu casa), comisariada por la historiadora del arte Tereza de Arruda, Chiharu Shiota ha trabajado junto al equipo de Azkuna Zentroa en el concepto de casa/etxea, extendiendo el ámbito doméstico al espacio público, en diálogo con la arquitectura de la Alhóndiga de Bilbao. El resultado, a modo de *site-specific*, invita al público a experimentar diferentes ambientes de hogar que conectan a cada persona visitante con sus recuerdos, a partir de elementos de la vida cotidiana.

Exposición

Del 27 de mayo al 28 de septiembre, 11:00-20:00
Atrio de las Culturas / Sala de Exposiciones
Entrada libre

and religion, offering a universal narrative on loss, connection, and the preservation of memory.

In *My House is your House*, curated by art historian Tereza de Arruda, Chiharu Shiota has worked alongside Azkuna Zentroa on the concept of home, or casa/etxea, extending the domestic realm to a public space, in dialogue with the architecture of Bilbao's Alhondiga building. The result, as a site-specific installation, invites the public to experience different home settings that connect visitors with their memories through elements of everyday life.

Exhibition

27 May - 28 September, 11:00 a.m. - 8:00 p.m.
Atrium of Cultures / Exhibition Hall
Free admission

LORE STESSEL

Poëtry of the gang



Dantzaria · Bailarina · Dancer: Ziomara Hormaetxe

Lore Stessel (Belgika)

Lore Stessel artista flandestarrak argazkiaren eta pinturaren arteko harremana aztertzen du. Bere obraren parte handi bat era guztietako dantzarekin izandako elkarketen emaitza da, gonbidapena egiten baitie aske dantza egin dezaten bere lantokian aurrean, berak aukeratutako testuinguru / leku batean.

Lore Stesselek *Poëtry of the gang* proiektu fotografikoaren emaitza jarriko du ikusgai, Azkuna Zentroan artista AZkide gisa izandako egonaldian egin duen lana. Seriean, kaosa, sena, anarkia eta harmoniak espazioa elkarbizitzan duen potentziala aztertu ditu.

Bi urtean zehar, Stesselek une horiek harrapatu ditu dantza- eta koreografia-taldeekin izandako elkarketetan —bertako zaleen zein profesionalen taldeekin—, artistak espazioak sortu baititu “ustekaberako” eta “ezustekorako”. Eguneroko errutinen edertasuna, keinu txikiak eta mugimenduaren boterea islatzen dituzte. Eguneroko bizitza dantza bihurturik.

Atarian jarritako instalazioan, irudiak inprimatuta proiektatzen dira ehun zeharrargi baten gainean, eta horrek aukera ematen du brisaren, argiaren, eraikineraren eta publikoaren eragin-trukea egon dadin, elkarren arteko mugimenduko jolas batean.

Instalazio fotografikoa
Maiatzaren 27tik 31ra
Kulturen Ataria
Sarrera dohainik

Lore Stessel (Bélgica)

La artista flamenca Lore Stessel explora la interrelación entre fotografía y pintura. Gran parte de su obra es el resultado de encuentros con todo tipo de bailarines, a quienes invita a bailar libremente frente a su lente en un contexto/lugar de su elección.

Lore Stessel muestra el resultado de *Poëtry of the gang*, proyecto fotográfico desarrollado durante su residencia como Artista Asociada a Azkuna Zentroa. La serie explora ideas de caos, instinto, anarquía y el potencial de la armonía en la convivencia del espacio.

A lo largo de dos años, Stessel ha capturado esos momentos en encuentros con grupos de la danza y la coreografía, tanto aficionados como profesionales del contexto local, en los que la artista ha creado espacios para “lo accidental” y “lo imprevisto”. Reflejan la belleza de las rutinas diarias, los pequeños gestos y el poder del movimiento. La vida cotidiana convertida en danza.

En la instalación ubicada en el Atrio, las imágenes se proyectan impresas sobre un tejido traslúcido que permite que la brisa, la luz, el edificio y el público interactúen, en un juego de mutuo movimiento.

Instalación fotográfica
Del 27 al 31 de mayo
Atrio de las Culturas
Entrada libre

Lore Stessel (Belgium)

Flemish artist Lore Stessel explores the relationship between photography and painting. Much of her oeuvre results from encounters with all types of dancers. She invites them to dance freely in front of her (lens) in a context/place of their choice; sometimes indoors, mostly outdoors, but always in a place that, through them, Lore Stessel comes to discover herself.

Poëtry of the gang is the resulting exhibition of a photographic project developed by Lore Stessel throughout her residency as Associated Artist at Azkuna Zentroa. The series explores ideas around chaos, instinct, anarchy and the potential of harmony in cohabiting space.

For two years, Stessel invited several contemporary dancers and choreographers to take their picture while they improvised within the Basque landscape. She also worked with some very inspiring contemporary choreographers who shared their practice with her.

This way Stessel learned about a part of contemporary Basque culture: its way of moving its generous energy and its glorious landscapes. She has captured those moments in encounters with local dance and choreography groups, both amateur and professional. In these encounters, the artist has created space for the “accidental” and the “unforeseen”. They reflect the beauty of everyday routines, small gestures, and the power of movement. Everyday life turned into dance.

In the installation located in the Atrium, the images are printed on translucent fabric, allowing the wind, light, the building and visitors to interact by playing and moving each other.

Photography installation
27-31 May
Atrium of Cultures
Free admission



HÉCTOR ZAMORA

Txirikorda

EU

Héctor Zamora (Mexiko Hiria)

Héctor Zamora (Mexiko Hiria) artista bisualaren lanak erakusketaren espazio konbentzionala gainditzen du, eta berriz asmatu, definitu eta frikzioa sortzen du publikoaren eta pribatuaren ohiko rolen artean, kanpokoaren eta barrukoaren, organikoaren eta geometrikoaren, basatiaren eta metodikoaren, errealairen eta imajinarioaren artean.

Espazio publikoaren eta ikusleen zuzeneko parte-hartzearen inguruan egin dituen ekintzak nazioarteko toki garrantzitsuetan aurkeztu dira. *Txirikorda* Zamoraren obrarik berrien artean txertatzen da, Mercosulen 13. Bienalean aurkeztutako *Sem Título (Travessura)* (2022) lanarekin batera.

Héctor Zamora artista mexikarrak Prototipoak Bilbaon parte hartuko du *Txirikorda in situ* instalazio eta ekintza berriarekin. Ehungintzaren eta forma geometrikoen inguruan sortu du, Azkuna Zentroko terrazaren arkitekturekin harremanean jarritz.

Héctor Zamora ezaguna da nazioartean, espazio publikoan egiten duen lanagatik eta esperimentazioan aritzeagatik arkitektura iragankorrekin, egitura performatiboekin eta publikoaren parte-hartzearekin. Bere lanak aurre egiten dio artearen, lanaren eta komunitatearen arteko harremanari, eta eguneroko materialen eta ekintzen potentzial sinbolikoa aztertzen du.

Txirikorda obran, oihal ikaragarri bat korapilatzen da aire zabaleko egitura osatzen duten arkuen patroia geometrikoan, eta barneko eta kanpoko mugak desitxuratzen dira. Keinu poetiko horrek terrazaren arkitektura laztandu nahi du; armiarma-sareek eta gizakiarenak ez diren beste arkitektura batzuek naturalaren eta artifizialaren artean ibiltzeko duten modua imitatu, eta publikoa gonbidatu nahi du modu aktiboan parte hartzera.

Obra bi performanceren bidez aktibatuko da Bienalaren hasieran eta amaieran, deialdi publiko baten bidez hautatutako boluntario-talde batek parte hartuta.

Instalazioa

Maiatzaren 27tik 31ra: 9:00-21:00

Terraza

Sarrera dohainik

Performanceak / 30'

Asteazkena, maiatzak 28, 20:00

Larunbata, maiatzak 31, 19:00

Terraza

Sarrera dohainik

Héctor Zamora (Ciudad de México)

El trabajo del artista visual Héctor Zamora trasciende al espacio expositivo convencional, lo reinventa, redefine y genera fricción entre los roles comunes de lo público y privado, exterior e interior, orgánico y geométrico, salvaje y metódico, real e imaginario.

Sus acciones en torno al el espacio público y la participación directa del público se han presentado en importantes citas internacionales. *Txirikorda* se inscribe en el cuerpo de obra más reciente de Zamora que integra trabajos como como *Sem Título (Travessura)* (2022) presentado en la 13ª Bienal Mercosul.

El artista mexicano Héctor Zamora participa en Prototipoak Bilbao con *Txirikorda*, una nueva acción e instalación *in situ*, concebidas en torno al textil, en diálogo con las formas geométricas de la arquitectura de la terraza de Azkuna Zentroa.

Héctor Zamora es reconocido internacionalmente por su trabajo en el espacio público y la experimentación con arquitecturas efímeras, estructuras performativas y la participación del público. Su obra desafía la relación entre arte, trabajo y comunidad, explorando el potencial simbólico de materiales y acciones cotidianas.

En *Txirikorda*, una tela monumental se entreteje en el patrón geométrico de los arcos que componen la estructura al aire libre, desdibujando las fronteras del interior y exterior. Este gesto poético busca acariciar la arquitectura de la terraza, imitar la manera en que las telas de araña y otras arquitecturas no-humanas oscilan entre lo natural y lo artificial e invitar al público a participar de manera activa.

La obra incluye su activación a través de dos performances, al inicio y final de la Bienal, con la participación de un grupo de personas voluntarias, seleccionadas a través de una convocatoria pública.

Instalación

Del 27 al 31 de mayo: 9:00-21:00

Terraza

Entrada libre

Performances / 30'

Miércoles 28 de mayo, 20:00

Sábado 31 de mayo, 19:00

Terraza

Entrada libre

Héctor Zamora (Mexico City)

Visual artist Héctor Zamora's work transcends the conventional exhibition space, which he reinvents and redefines, generating friction among the common roles of public and private, exterior and interior, organic and geometrical, wild and methodical, as well as real and imaginary.

His actions revolving around public spaces and direct participation of the audience have been presented at important international events. *Txirikorda* is a part of Zamora's corpus of his most recent works, which includes *Sem Título (Travessura)* (2022), presented at the 13th Mercosul Biennial.

Mexican artist Zamora is taking part in Prototipoak Bilbao with *Txirikorda*, a new *in situ* action and installation conceived around textiles and geometric shapes in conversation with the Azkuna Zentroa terrace architecture.

Héctor Zamora is internationally known for his work in public spaces and experimenting with ephemeral architectures, performative structures, likewise the active participation of the public. His work challenges the relationship between art, community and work, exploring the symbolic potential of ordinary materials and actions.

In *Txirikorda*, an enormous piece of fabric is woven through the arches comprising this outdoor structure to form a geometrical pattern blurring the interior and exterior boundaries. This poetic gesture seeks to caress the terrace architecture, copying the way cobwebs and other non-human architectures sway between the natural and artificial, and inviting the public to actively take part.

This work includes its activation through two performances, at the beginning and end of the Biennial, with the participation of a group of volunteers chosen through a public call.

Installation

27 - 31 May: 9:00 a.m. - 9:00 p.m.

Terrace

Free admission

Performances / 30'

Wednesday 28 May at 8:00 p.m.

Saturday 31 May at 7:00 p.m.

Terrace

Free admission

DIMITRI DE PERROT

In the middle of something



Dimitri de Perrot (Suitza)

Dimitri de Perrot musikaria, eszenografoa, zuzendaria eta soinu-artista da. Antzoki, museo eta espazio publikoetarako soinu-ekoizpenak eta -instalazioak sortzen ditu, eta modu sotil eta poetikoan lortzen du publikoak kanpoaldea entzun dezan. Trebetasunez egiten die aurre pertsonen arteko mugei, kolektibitate-zentzua orkestratuz bere interpretaziorik pertsonalenetan oinarrituta.

In the middle of something haize- eta espazio-instalazio bat da, lurrean garatutako ikerketa artistiko zabalago baten parte. Kontenplazio lasairako leku gisa sortua, kupula-forma duen oihal finezko egitura bat da instalazioa. Publikoa ordu erdiro sar daiteke bertara, zapatarik, telefono adimendunik eta arreta galarazten duten bestelako gailurik gabe. Helburua da dinamika erabat esperimentatzea, une jakin bateko elementu protagonista guztien izaera gurutzatua.

Belgikako Broek Jaialdian arrakasta handiz estreinatu ondoren, instalazio hau Prototipoak programan aurkeztuko da, askotan sumatzen ez baditugu ere, jasaten ditugun indar kulturalak eta naturalak erakusteko. Publikoak esperientzia indibiduala duen arren, pixkanaka nabarituko du komunitate zabalago bateko kidea dela, hizkuntzaren bidez argi ezin adieraz daitekeen zerbaitek nolabaiteko lotura sortuko balu bezala.

Instalazioa**Maiatzaren 28tik 31ra****15:00 – 20:00 / Emanaldiak 30 minuturo****Terraza****Sarrera dohainik webgunean izena eman ondoren****Dimitri de Perrot (Suiza)**

Dimitri de Perrot es músico, escenógrafo, director y artista sonoro. Crea producciones e instalaciones sonoras para teatros, museos y espacios públicos, donde introduce al público de forma sutil y poética en la escucha del exterior. Desafía hábilmente los límites entre las personas, orquestando un sentido de colectividad sobre la base de sus interpretaciones más personales.

In the middle of something es una instalación de viento y espacio, que forma parte de una investigación artística más amplia desarrollada sobre el suelo. Concebida como un lugar de contemplación tranquila, la instalación consiste en una estructura de tela fina con forma de cúpula a la que el público puede acceder cada media hora, sin zapatos, teléfonos inteligentes ni otros dispositivos que distraigan su atención. El objetivo es experimentar plenamente la dinámica y la naturaleza entrelazada de todos los elementos protagonistas de un momento concreto.

Tras su exitoso estreno en el Festival Broek de Bélgica, esta instalación se presenta en Prototipoak para mostrarnos las fuerzas culturales y naturales a las que estamos sometidas y que a menudo no percibimos. Aunque el público vive una experiencia individual, experimenta gradualmente la sensación de pertenecer a una comunidad más amplia, como si algo que no puede articularse claramente mediante el lenguaje creara algún tipo de conexión.

Instalación**Del 28 al 31 de mayo****15:00 – 20:00 / Pases cada 30 minutos****Terraza****Entrada libre previa inscripción en la web****Dimitri de Perrot (Switzerland)**

Dimitri de Perrot is a musician, stage designer, director and sound artist. He creates productions and sound installations for theatres, museums and public spaces, in which he subtly and poetically introduces the audience into listening to the outdoors. He skillfully challenges the boundaries between individuals, orchestrating a sense of collectivity while drawing deeply on our most personal interpretations.

In the middle of something is a wind and space installation, part of a broader artistic research on soil. Thought as a place of quiet contemplation, the installation consists of a thin-skinned fabric dome which participants can enter every half hour with a handful of others, without shoes, smartphones or other distracting gadgets,

to fully experience the dynamics and interwoven nature of all protagonists of a present moment.

After being successfully premiered at Broek Festival in Belgium, this installation pops up in Prototipoak, demonstrating the cultural and natural forces we are subject to—even if we often do not notice them. While the audience has an individual experience, the sense of belonging to a wider community is gradually felt: something that cannot be clearly articulated with language connects us somehow.

Installation**28-31 May****3:00 – 8:00 p.m. / Visits every 30 minutes****Terrace****Free admission prior registration on the website**

HABLARENARTE & CHRISTIAN FERNÁNDEZ MIRÓN

Músicas memorables



© Vicens Giménez

EU

hablarenarte

Letra xehex idatzia eta etengabe aldatuz, hablarenarte Madrilen egoitza duen irabazi-asmorik gabeko erakunde bat da. 2002. urteaz geroztik ari da lanean, kultura-bitartekaritzan, komisariotza hedatuan, sorkuntza garaikidean eta hezkuntzan. Hablarenarte elkarren mendekoak eta jasangarriak diren kultura-proiektuen plataforma bat da.

Christian Fernández Mirón

Artea, hezkuntza, kultura eta ildo soziala zeharkatzen dituzten proiektuak lantzen ditu. Soinu-bandak eta musika-proiektuak egin ditu, bakarka Sef ezizenpean, ELM eta Nerval taldeekin, FOCO inprobisazio askeko orkestrarekin, eta Todos caníbales opera garaikideko kide gisa.

Músicas memorables belaunaldien arteko proiektu bat da, hablarenarte elkarteak eta Christian Fernández Mirón artista eta hezitzaileak elkarrekin sortua, ahozotasunaren eta herri-kantuaren inguruan, tradizionala eta garaikidea dena lotuz. Adineko pertsonen taldeak ikusarazi, eta haiekin jardun nahi du, bi arrazoirengatik baitira ikusezin: adinagatik eta kolektibo jakin bateko kide izateagatik. Estatu espainiarreko hainbat hiritan hiru edizio eta Txileko Santiagon laugarren edizioa egin ondoren, proiektua

Bilbora iritsiko da, bertako adinekoen talde batzuekin eta artistekin lankidetzan aritzeko asmoz.

Maiatzean jarriko da abian, ahozko tradizioko laborategiekin. Hor, Bilboko eta Bizkaiko adinekoek beren oroitzapenak, kontakizunak eta kantuak azalduko dituzte. Christian Fernández Mirónek lagunduko die, gai horien inguruko hainbat saio egingo baititu parte-hartzaileekin, ahots eta gorputzetik abiatuz. Topaketa horietako soinua erregistratu, eta sarrera libreko artxibo bat eraikiko da, musika gogoangarriekin eta horiei lotutako testigantzekin. Hala, ahozko tradizioak eta herri-kantuak oroimen kolektiborako eta sorkuntza garaikiderako duten garrantzia nabarmenduko da.

Prototipoak Bilbaoren esparruan, proiektuaren lehenengo fasea egingo da, haren prozesua eta metodologia partekatzeko. Bigarren fasean, hain zuzen, musika-egonaldian, bertako bi artistarekin sortutako errepertorioa konposatu, grabatu eta ekoitziko da, eta udazkenean aurkeztuko da jendaurrean.

Proiektuaren aurkezpena

Asteazkena, maiatzak 28 / 18:00

Bastida Aretoa

Sarrera dohainik, webgunean izena eman ondoren, leku guztiak bete arte

hablarenarte

Escrito en minúscula y en constante mutación, hablarenarte es una organización sin ánimo de lucro con sede en Madrid que trabaja desde el año 2002 en el ámbito de la mediación cultural, el comisariado expandido, la creación contemporánea y la educación. Hablarenarte es una plataforma de proyectos culturales interdependientes y sostenibles.

Christian Fernández Mirón

Trabaja con proyectos que transitan el arte y la educación, la cultura y lo social. Ha desarrollado bandas sonoras y proyectos musicales, bajo su alias Sef, como parte de las agrupaciones ELM y Nerval, la Orquesta de improvisación libre FOCO, o la ópera contemporánea Todos caníbales.

Músicas memorables es un proyecto intergeneracional, cocreado por la asociación hablarenarte y el artista y educador Christian Fernández Mirón, en torno a la oralidad y el canto popular que conecta lo tradicional con lo contemporáneo. Busca visibilizar y colaborar con grupos de personas mayores, doblemente invisibilizadas por su edad y pertenencia a un colectivo concreto. Tras tres ediciones realizadas en diversas ciudades del Estado español y una cuarta en Santiago de Chile, el proyecto aterriza en Bilbao con el propósito de colaborar con diferentes grupos de mayores y artistas locales.

Se inicia en mayo con los laboratorios de tradición oral en los que personas mayores de Bilbao/Bizkaia aportan recuerdos, relatos y cantares. Les acompaña Christian Fernández Mirón, quien comparte varias sesiones en torno a estas cuestiones, desde la voz y el cuerpo, con el grupo de participantes. A partir de estos encuentros, cuyo sonido se registra, se va construyendo un archivo de acceso libre con músicas memorables y testimonios asociados que resalta la importancia de la tradición oral y el canto popular para la memoria colectiva y la creación contemporánea.

En el marco de Prototipoak Bilbao tiene lugar la primera apertura del proyecto para compartir el proceso y la metodología de esta iniciativa. En una segunda fase de residencia musical se lleva a cabo la composición, grabación y producción del repertorio generado con dos artistas locales, que se presentará públicamente en otoño.

Presentación del proyecto

Miércoles 28 de mayo, 18:00

Sala Bastida

Entrada libre previa inscripción en la web hasta completar aforo

hablarenarte

Written in lower case and constantly mutating, hablarenarte is a non-profit organisation with head office in Madrid. It has been operating since 2002 in the field of cultural mediation, expanded curatorship, contemporary creation and education. Hablarenarte is a sustainable interdependent cultural project platform committed to on-site research and immaterial production.

Christian Fernández Mirón

He works on projects that weave together art and education, culture and social issues. He has created solo soundtracks and musical projects under the pseudonym Sef, in groups such as ELM and Nerval, in the free improvisation Orchestra FOCO, and as part of the contemporary opera Todos caníbales.

Músicas memorables is an inter-generational project co-created between the hablarenarte association and artist-educator Christian Fernández Mirón. It is focused on orality and folk singing, connecting traditional and contemporary. The aim is to make visible and collaborate with senior citizen groups who are doubly invisible due to age and pertaining to a specific collective. After three editions held in several Spanish cities plus a fourth one in Santiago de Chile, this project has reached Bilbao with the purpose of working with various senior citizen groups and local artists.

The oral tradition workshops, where senior citizens of Bilbao/Bizkaia contribute memories, tales, and traditional songs, are set to begin in May. Accompanying them is Christian Fernández Mirón, who shares several sessions with the participants revolving around these matters, from voice and body. The sound of these sessions is recorded to create a free access file with memorable pieces of music and associated testimonies, which highlights the importance of oral tradition and folk singing for the collective memory and contemporary creation.

The project will have its first opening during Prototipoak Bilbao, to share the process and methodology of this initiative. In the second stage of musical residency, two local artists will undertake the composition, recording and production of the repertoire generated, which will be presented to the public in autumn.

Project presentation

Wednesday 28 May / 6:00 p.m.

Bastida Hall

